

Harremanak

Xabier Mikel
Errekondo

Konplexuak dira jendarte honetan harremanak. Sentiberatasuna, lagunak, konplizitateak... Baina, bereziki konplexuak biren arteko harreman afektiboak dira, tartean sexualitatea, sexua, maitasuna edo maitemintzea dagoenean. Hasieran nekez daiteke jakin harreman batek ez nora ez nola eramango zaituen.

Ezagutzen dut “konpromisorik gabeko” istorio akordaturik, maiteminak urtutako historia bilakatua. Nago, baina, askok eta askok arriskurik hartu nahi ezagatik harremanei hasteko aukerarik ere ez dietela ematen. Arazo iturri direlakoan nahiago dutela kuadrillara mugatzea eta aldian aldi diko beharrak asetzeko ordainpeko sexu-koitora jotzea... Jokabide hau agian kultura-

la da, gizarte eredu honek iltzatu dizkigun prejuizioek sortutako zalantza eta konfiantza faltaren emaitza, edo, besterik gabe, gizakiaren ezaugarri naturala da gaudenean geratzea eroso, urgentziazko beharrek astindu artean... Merezi du ordea arriskatzekak eta harreman-abenturak bizitzea zentzu guztietan, nora eta nola eramango zaituzten jakin gabe. Urrats-urratu bakoitzaren aurrekoak, uneko bizipenak eta ondorenak gozatzeak dizkizu giharrik txikiena ere tenkatuko, eta birika-albeoloak zabal-estuka sentiaraziko arnasketa bakoitzean. Horixe da bizitzaren gatza eta piperra.

Gustuak izan baditugu, ardo txuri, beltz edo cava, okel edo/eta arrain... Probatu zapore berriak beldurrik gabe. Harreman aukerak begi aurrean ditugu. Eta, gizarte kon-

tsumista pozoitu honek geure aukerak diru-zorroaren, bularren edo zakilaren tainaren arabera neurtzen dituen arren, gakoa bakoitzaren abilezian, elokuentzian eta artean dago. Baina, hauek soilik ibilian-ibilian arriskutan blaituz dira biltzen.

Bilatu besteekin harremanak, zu ere pertsona gisa aberastu egingo zaituzte eta. Bilatu batez ere sexu-harremanak, ziurgabetasun- eta beldur-murruak eraitsiko dituzu eta.

Ez egin kasu prejuizioei, ongi pasatzea baita dema. Lekuko, jasotako loreetatik gordetzen dudan ederrena: «hain gustura nago, izan ere, hainbeste barre egiten dut zurekin». Gainontzean, eman eta jaso plazera, abenturaren parte, osagarriak halere. •

Josi eta josi, zauriaz ahan tzi gabe

Bati baino gehiagori aditu diot Franco orain irabazten ari dela gerra Euskal Herrian. Beldur naiz hala ote den. Erdara makilakadaka barneratu zutenek ikastolara eraman gintuzten seme-alabok, euskal hezkuntza ziurtatua izan genezan, ez hizkuntzarena soilik, baita kultura osoarena ere. Bertze batzuek, hainbertze sufritu zuten “aldeano atzeratuak” izateagatik, erdaraz hezi ziztuztela umeak, lasai bizi zitezen. Baina haztean hauek ere berriro hurbildu dira euskarara, ahalegin handiz, eta hizkuntza honetan eskolaratu dituzte txikiak. Bertze aunitzek ez dute oraindik euskaraz matrikulatzeko aukerarik, edo kilometro aunitz

egin behar dituzte, horrek dakarren arrisku eta gastuarekin. Mapa puskatu ziguten, hizkuntza ere bai, eta odolez, izerdiz eta malkoz goaz josten.

Baina joste horretan, ustezko “normaltasunera” ailegatu garen tokietan ez dakit ez al garen abiapuntuaz, zauriaz ahan tzen ari. Aitzineko belaunaldiek kontatzen dute eurentzat ekintza transgresorea euskaraz egitea zela eta lagunekin eta etxean hala aritzen zirela. Orain, ohartu gabe, buelta eman du egoerak eta gune euskaldunetan erdaraz egitea da guay dagoena. Euskara eskolako hizkuntza izatera pasa da.

Eta kulturarekin gauza bera. Durangoko Azoka bisitariz beteko da aurtan ere, baina

kontsumitzaileak falta ditu bertako kulturak. Ze liburu irakurtzen ditugu? Ze tele-sail ikusi? Ze musikarekin dantzatu? Ze eduki dituzte gure hedabideek? Ez al dira gehiegitan erdaldunen kopia txarrak?

Jasotzen dugun bonbardaketa izugarria da eta uste dut gure burua zigortzea baino hobea dela kritika eraikitzaile bat egitea eta bakoitzak beretik pauso bat aitzinera ematea. Zauriaz oroitzea, kontzientzia berreskuratzea, jostea eta jostea... Horretan irakasle apartak ditugu gurea baino egoe-ra zailagoa bizi duten indigenak, asteotan Garabiderekin bisitari ditugunak, edo Euskal Herrian bertan euskaraz egiteko arazo gehien dituztenak. •

Maid er lantzi